



© KONTZERTUA

Beltxargen iraultza



Dance Factory Johannesburg taldea, Arriaga Antzokian.



SWAN LAKE
BELTXARGEN AINTZIRA
DANCE FACTORY
JOHANNESBURG TALDEA

ZUZENDARI ETA KOREOGRAFOA:
DADA MASILO

Bilboko Arriaga Antzokia / Otsailaren 2a.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Dada Masilo dantzariaren ikuskizun honetan ezer ez da aurretik espero dena. Ez da ikusi nahi genuena baina txarragoa, ezta hobe ere. Egia esan, konplikatua da esplikatzea. Dantza klasiko bat –twist batekin, hori bai– disfrutatzen gindoazen, baina istorio sinple eta labur-laburra (ordubete baina gutxiagokoa) ikusi genuen, zein generorik ez zegoen, *Beltxargen aintzira* klasikoaren argumentua erabat galduta zegoen, eta Txaiikovskiren musika oso tarteka entzun genuen. Hau guztia egia da. Baina ikuskizun fresko eta benetan polita eta alaia gozatu genuen.

Hegoafrikan, Dada Masilo dantzari koreografo gazte ezagunenetakoa bat da, ausarta, distiratsua. Klasikoen artean klasikoena hartu du, beretu egin

ditu honen gaiak, Txaiikovski-ren musika –beste batzuekin nahastuta, oso nahastuta–, tutuak eta puntako oinetakoak, eta, hori guztiarekin sudur puntan jarri zaiona egin du, begirune handiz, hori bai. Esan bezala, Txaiikovski maisuaren gaiak hartu ditu, baita ere Saint-Saëns-en pasarteak, edo Arvo Part bezalako musikari garaikideen partiturak. Koktel zoragarria.

Mutilak eta neskek tutua jantzita, amodio homosexual baten istorioa kontatzen du, gizartearen tolerantziarik eza, bakardade sentimendua... baina, hori bai, umorez eta dantza sutzaile batez. *Beltxargen aintzira* bertario errotu hau Europa osoan, Montrealen, Ottawan eta New Yorken antzestu da oso kritikak onak lortuz. Izan ere, Lyongo biena-

lean izugarritzko arrakasta izan zuen, batez ere klasikoaren ikuspuntu berri eta apurtzailea emateagatik.

Koreografiari buruz, gauza onak besterik ezin dira esan. Birtuosismoz nahasten ditu Masilok puntako dantza eta afrikar eragin sendoak dituen dantza garaikidea, oso estilizatua eta erritmikoa. Eta nahasketa horren ondorioz ballet bizi-bizia ateratzen da. Ez nuke esango teknikaren aldetik perfekzioa lortzen dutela, ez, baina perfektioetatik haratago joaten dira Johannesburgokoak. Dantzaren pasioa da haien helburua eta zalantzarik gabe lortu zuten pasioa eta emozioa publikoarengana transmititzen. Di-da batean pasatu zen berrogei eta hamar minutu iraun zuen ikuskizun zirraragarri hau. Haize freskoa! ●